

Familia-harremanetik eratorritako pentsioak

17

Justiziaren Oinarriak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Justizia Administrazioarekiko
Harremanetarako Zuzenduntza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Relaciones con la
Administración de Justicia

1. Seme-alaben aldeko elikagai-pentsioak

1º. Zertan datza gurasoek seme-alabei "elikagaiak" emateko betebeharra?

- Legearen arabera, adingabeen (eta egotzi ezin zaien arrazoi batengatik beren prestakuntza amaitu ez duten nagusien) mantenu, bizileku, arropa, osasun-laguntza, heziketa eta eskolatzera beharrezkoa den guztia da "elikagai".

2º. Zer da elikagai-pentsioa?

- Seme-alaben zaintza ez duen aitari edo amari seme-alaben elikadura, arropa, heziketa eta osasun-laguntzaren ondoriozko gastuak ordain-tzeko ezartzen zaion betebeharra da.
- Betebehar hau Epaileak ezartzen du gurasoen bizikidetzat hausten den kasuetan, gurasoak ezkondata dauden ala ez kontuan hartu gabe.

3º. Nola ezartzen da?

- Elikagai-pentsioa gurasoek (elkarren arteko adostasunez, hitzarmen erregulatu batean) edota Familiako Epaileak (prozesu judizialean, gurasoen arteko adostasunik gabe) finka dezakete.

Pentsioa finkatzeko erabiltzen diren irizpideak

- Guraso bakoitzaren diru-sarrerekiko eta seme-alaben beharrekiko (elikadura, arropa, heziketa, osasun-laguntza eta abar) proportzionala da.

Behar horiek familiaren maila ekonomikoaren arabera izango dira: maila hori zenbat eta handiagoa izan, orduan eta aukera gehiago izango dira gastuak zabaltzeko (hizkuntzak, bidaiak, eskolaz kanpoko jarduerak eta abar).

- Kontuan izan behar da seme-alaben zaintzak dakartzan zereginen balorazio ekonomikoa: seme-alaben zaintza duen aita edo ama, bestea ez bezala, behartuta dago seme-alabei janaria prestatzera, arropa garbitzera eta abar.

Beraz, gurasoen diru-sarrerak antzekoak izanik ere, zaintza ez duenak besteak baino proportzio handiagoan ordaindu beharko du.

- Aitak edo amak berarekin bizi den seme edo alabaren eguneroko arretaz duen ardurak da zaintza. Gurasoak bananduta daudenean, batek bakarrik hartzen du bien seme-alaben zaintza (seme-alabak ezin baitira biek bizi). Zenbait kasutan berriz, aitak eta amak seme-alaben gaineko zaintza partekatua ezartzen dute elkarren arteko adostasunez, hitzarmen batean.

4º. Seme-alaben elikagaiak ordaintzeko modalitateak

- Gurasoen artean adostasunik ez badago, bion seme-alaben elikagaiengatik ordaindu beharrekoa Epaileak finkatzen du gurasoen arteko adostasunik gabeko prozesu batean (banantze edo dibor-tzio auzietan adibidez). Normalean aldizkako kopuru berdin bat finkatzen du, hilerokoa ia beti. Kopuru hau urtero eguneratu behar da Estatuko Estatistika Erakundeak (INE) edo antzeko erakunde batek (Merkataritza Ganbarak eta abar) argitaratutako Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) igoeraren arabera.
- Gurasoen artean adostasuna badago, aldizkako pentsioak ez diren beste ordainketa-modalitate batzuk itundu ditzakete Hitzarmen Erregulatuazalean (ondasun jakin batzuen gaineko usufuktu bat eratzea adibidez). Aldizkako kopuru berdin bat izaten da, hilerokoa ia beti. Urtero eguneratu behar da KPlaren igoeraren arabera.

Pentsioak ez ordaintzea delitu izan al daiteke?

Bai. Kode Penalean pentsioak ez ordaintzeari lotutako delitua barne hartzen da. Delitu izateko, bi hilabete segidan edo bestela lau hilabete utzi behar dira ordaindu gabe.

Delitu honek zortzi asteburutik hogeira bitarteko atxiloketa-zigorra du.

5º. Zein da seme-alabei elikagaiak emateko betebeharraren iraupena?

- Printzipio orokor gisa, gurasoak behartuta daude seme-alabak mantentzera, adina edozein izanik ere (adingabeak eta mendetasun ekonomikoa duten nagusiak –azken kasu hau ez da seme edo alabaren gehiegikeriatzat hartzen–) (“Ez da alferkeria sustatuko” adierazi dute auzitegiek epai askotan).
- Beraz, elikagai-pentsioek edo bestelako ordainketa-moduek seme edo alabak bere independentzia ekonomikoa lortu arte iraun ohi dute.
- Halaber, pentsioa iraungi egiten da seme edo alabaren edota ordaindu behar duen aita edo amaren heriotzaren kasuan.
- Kontuan izan behar da azken bost urteetan ordaindu gabeko elikagai-pentsioak besterik ezin direla erreklamatu.
- Gurasoek hitzarmenean elkarren arteko adostasunez finkatutako pentsioa edo, adostasunik izan ezean, Epaileak finkatutakoa

Adibidea

1. Xabier bi seme-alaben aita da eta bere banantze-epaian ezarrirakoaren arabera, bakoitzari hilerro 180 €ko pentsioa ordaintzeko betebeharra du. Xabierrek berandu ordaintzen du pentsioa eta, gainera, hilabete ba-tzuk ordaindu gabe utzi ditu. Legeak ematen al du aukerarik hileroko elikagai-pentsioaren ordainketa bermatzeko, Xabierren borondatearen arabera izan ordez?

Bai, elikagai-pentsioa jasotzen duen pertsonak (seme-alaba adingabeek, beren legezko ordezkaria den amaren bitartez) banantzea (edo, hala badagokio, dibortzioa) bideratu zuen Epaitegiari eska diezaioke, Epaia betearazteko prozedura batean, ordainketa egin behar duen pertsonak (aitak kasu honetan) lan egiten dueneko enpresak pertsona horren soldataren atxikipena egin dezan eta enpresak pentsioaren kopurua interesdunak adierazitako banku-kontuan sar dezan.

Ordainketa egin behar duenak bere kontura lan egiten badu edo lan egiten ez badu, pentsioaren ordainketa bermatzea zailagoa izango da (behartuta dagoenak borondatez egiten ez badu). Kasu honetan, ordaintzera behartuta dagoenaren izenean dauden ondasunak (halakorik balu) bahitzea eskatu behar zaio Epaitegiari eta horrek ikerketa korapilatsua eta askotan garestia dakar askotan.



2. "Konpentsazio-pentsioak" banantze edo dibortzio kasuetan

Zer da konpentsazio-pentsioa?

Ezkontide baten alde ezartzen den pentsioa da (beste ezkontideak ordaindu beharrekoa), banantzearen edo dibortzioaren ondorioz bere egoera ekonomikoak okerrera egiten duenean.

Pentsioa emateko baldintzak

- Banantzea edo dibortzioa gertatzea (beraz, beharrezkoa da aldez aurretik ezkontuta egotea).
- Pentsioa jasotzeko eskubidea duela uste duen ezkontideak eskaera egitea (eskatzen ez badu ez zaio emango).
- Pentsioa eskatzen duen ezkontideak dibortzioaren edo banantzearen ondorioz bere egoera ekonomikoak nabarmen okerrera egin duela frogatzea (frogatzeko modukoa izan behar du).

Nola ezartzen da?

Pentsioa ezkontideek (prozedura elkarren arteko adostasunekoa denean eta banantze edo dibortzio hitzarmen erregulatzailan) edota Epaileak (ezkontideen artean adostasunik ez dagoenean) finka dezakete Legeak adierazitako ondoko irizpideak kontuan hartuta:

- Ezkontideen arteko akordioak.
- Bakoitzaren adina eta osasun-egoera.
- Lanbide-prestakuntza eta enplegua lortzeko aukerak.
- Familiari eskainitako ardura (iraganean eta gaur egun).
- Ezkontzaren eta ezkon-bizitzaren iraupena.
- Pentsioa eskatzen duen ezkontideak bestearen merkataritza, industria edo lanbide jardueretan ematen duen laguntza.
- Ezkontide bakoitzaren ogasuna, baliabide ekonomikoak eta beharrak.

Konpentsazio-pentsioaren ordainketa

- Konpentsazio-pentsioa ordaintzeko modurik ohikoena hilero diru-kopuru bat ematea da. Kopuru hau urtero eguneratu behar da Estatuko Estatistika Erakundeak (INE) edo antzeko erakunde batek argitaratutako Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) aldakuntzaren arabera.

Konpentsazio-pentsioaren ordainketa

Konpentsazio-pentsioa ondoko kasuetan iraungiko da:

- a) ezkontideen elkarren arteko adostasunez, edota
- b) legean aurreikusitako arrazoiengatik, hots:
 - Pentsioa jasotzeko arrazoa desagertzen denean (pentsioa jasotzen duen ezkontideak banandu edo dibortziatu aurrekoaren antzeko bizi-mailarekin bizitzeko aukera ematen dion lan bat aurkitzen duenean adibidez).
 - Pentsioa jasotzen duen ezkontidea ezkontzen denean edo beste pertsona batekin bikote gisa bizi denean.

Adibideak

1. Javier, dibortzio-epaiaren arabera, behartuta dago Maiteri hilero 250 €ko konpentsazio-pentsioa ordaintzera. Javierrek berandu ordaintzen du pentsioa eta, gainera, hilabete batzuk ordaindu gabe utzi ditu. Legeak ematen al du aukerarik Maiteri konpentsazio-pentsioaren ordainketa bermatzeko, Javierren borondatearen arabera izan ordez?

Bai, konpentsazio-pentsioa jasotzen duen pertsonak dibortzioa bideratu zuen Epaitegiari eska diezaioke, Epaia betearazteko prozedura batean, ordainketa egin behar duen pertsonak (ezkontide ohiak kasu honetan) lan egiten dueneko enpresak pertsona horren soldataren atxikipena egin dezan eta enpresak pentsioaren kopurua interesdunak adierazitako banku-kontuan sar dezan.

Ordainketa egin behar duenak bere kontura lan egiten badu edo lan egiten ez badu, pentsioaren ordainketa bermatzea zailagoa izango da (behartuta dagoenak borondatez egiten ez badu). Kasu honetan, ordaintzera behartuta dagoenaren izenean dauden ondasunak (halakorik balu) bahitzea eskatu behar zaio Epaitegiari eta horrek ikerketa korapilatsua eta garestia dakar askotan.


2. Nire senarra enpresaria da eta ni laguntzaile moduan aritu izan naiz enpresan, hainbat lan-jardueratan (administrazio-jardueretan, harreman publikoetan eta abar) eta ezein lan-kontraturik gabe.

Banantzearen ondorioz, nire senarrak bere enpresa-jarduerarekin jarraitzen du eta nik ez dut lan propiorik; beraz, nire egoera ekonomikoak okerrera egin du. Ba al dut konpentsazio-pentsio bat jasotzeko eskubiderik?

Bai, pentsioa emateko kontuan hartu beharreko alderdietako bat, hain zuzen ere, ezkontide batek bestearen merkataritza eta lanbide jardueretan emandako laguntza baita.

3. 60 urte ditut eta ezkondu nintzenetik (duela 30 urte) nire senarra eta seme-alabak zaindu eta etxeko lanez arduratu besterik ez dut egin. Orain banantzea eskatzea erabaki dut. Eska al dezaket konpentsazio-pentsiorik?

Bai, hainbat baldintza betetzen baitituzu (egiaztatu beharrekoak): egungo adina (60 urte), 30 urtetan izandako familiaren erabateko ardura, senarraren diru-sarreretikiko mendetasun ekonomikoa eta etxetik kanpoko lan-jarduera baten ondoriozko sarrerarik ez izatea.



3. “Senideen arteko elikagaien” betebeharra

Zertan datza “senideen arteko elikagaien” betebeharra?

- Gurasoek adin-txikiko seme-alabak mantentzeko betebeharratz gain, legeak senidetasun-loturak dituzten pertsonen artean “elikagaiak” emateko betebeharrak ezartzen du.
- Legeak hiritar orori ematen dio eskubidea senide hurbilenentzat lagun-tza ekonomiko bat eskatzeko (senide horiek behar ekonomikorik larrienean daudenean).
- Pertsona batek duintasunez bizi ahal izateko lanik edo bestelako baliabide ekonomikorik ez badu (pentsioak eta abar), senide hurbilenak behartuta daude, legez, laguntza ekonomiko bat ematera (“elikagaiak” ematera alegia).

“Elikagaiak” eskatzeko baldintzak

Elikagaiak eskatzen dituenaren (elikagai-hartzailearen) eta ematen dituenaren (elikagai-emaitzailearen) artean ezkontza-lotura edo senidetasun-lotura bat izatea.

- Eskatzen dituenak baliabide ekonomikorik ez izatea.
- Elikagai-emaitzaileak (eskaeraren xede den pertsonak) posibilitate ekonomikoak izatea.

Zein dira “elikagaiak” ematera behartuta daudenak?

Legeak ondoko ordena ezartzen du senidetasun-loturak dituzten pertsonen artean:

- Senar-emazteak elkarren artean.
- Ondorengo hurbilenak (seme-alabak, bilobak eta abar).
- Aurreko hurbilenak (gurasoak, aiton-amonak eta abar).
- Anai-arrebak.

Zer dira “elikagaiak”

Bizitzeko ezinbestekoa den guztia: etxebizitza, janaria, arropa, osasun-laguntza eta heziketa.

Heziketa, nolana ere, adin-txikikoentzat edo egotzi ezin zaien arrazoi batengatik prestakuntza osatu gabe duten adinez nagusientzat da soilik.

“Elikagaien” kopurua finkatzeko kontuan hartzen diren irizpideak

Bi faktore hartzen dira kontuan:

- Legez “elikagaiak” ematera behartuta dagoenak dituen baliabide ekonomikoak.
- Jasotzen dituenaren beharrak.

Kopurua ez da finkoa izango. Aitzitik, handiagoa edo txikiagoa izango da jasotzen dituenaren beharrak eta eman behar dituenaren posibilitate ekonomikoak handiagoak edo txikiagoak diren neurrian.

“Elikagaiak” emateko modua

“Elikagaiak” emateko bi modu daude:

- a) Eskudirutan ordaintzea (hilabete aurreratuetan).
- b) “Elikagaiak” ematera behartuta dagoenak beharra duen senidea bere etxean mantentzea.

Elikagaiak emateko modurik egokiena aukeratzea, ordaintzera behartuta dagoenari dagokio.

Nola eska daiteke “elikagaien” prestazioa?


- Elikagaien hartzekodunaren bizilekuari dagokion Lehen Auzialdiko Epaitegiaren aurrean erreklamazio (demanda) bat aurkeztuta.
- Demanda Abokatuaren bidez aurkeztuko da (partikularra edo ofiziokoa). Prokuradorea ez da beharrezkoa. Demandak eskatzaileak frogatu beharko dituen ondoko funtsezko alderdi hauek adieraziko ditu:
 - a) Elikagai-hartzailearen eta elikagai-emailearen arteko senidetasuna.
 - b) Elikagaiak eskatzen dituenaren (eskatzailearen) beharra.
 - c) Elikagaiak eman behar dituen pertsonaren posibilitate ekonomikoak.
 - d) Prestazioaren kopurua.
- Epaileak elikagai-emaileari elikagai-hartzailearen aldeko “elikagai-pentsio” baten ordainketa ezartzen badio eta elikagai-emaileak ordaintzen ez badu, pentsioa ordaintzera behartzeko beharrezkoak diren bortxazko neurri guztiak hartu ahal izango ditu (ondasunen bahiketa barne).
- Elikagaiak demanda jartzen den egunetik aurrera ordainduko dira.
- Azken bost urteetako elikagaiak soilik eska daitezke judizialki

Adibidea:

- 23 urte ditut, ikasketak amaitu gabe eta gurasoekin bizi naiz. Gurasoak behartuta al daude ni mantentzen jarraitzera?

Bai, betiere gurasoekiko mendetasun ekonomikoaren arrazoia semeak edo alabak ikasketetan erakusten duen aprobetxamendurik eza ez bada (seme edo alabaren jokabidea eta jarrerak aztertu beharko dira).

Kasu honetan, gurasoak behartuta daude semea edo alaba mantentzera (honek autonomia ekonomikoa lortu arte).



justizia-administrazioako liburuxken fitxategi-zerrenda

1. Justizia-administrazioa. Administrazio publikoa eta herritarrak.
2. Gatazkak ebazteko era alternatiboak.
3. Oinarrizko lan-gida.
4. Atzerritarren eskubideen gisa.
5. Erregistro zibilaren gida. Adin-nagusitasuna eta emantzipazioa. Bizilekua eta auzotasun zibila. Heriotza. Pertsonen desagertpena.
6. Ondorengotzak eta jaraunspenak.
7. Jabetza-erregistroa eta merkataritza-erregistroa.
8. Hiri-errentamenduak.
9. Prozedura zibileko lege berriaren prozedurak.
10. Salaketak eta lekukoak jurisdikzio penalean.
11. Defentsa eta ordezkari-tza epaitegien aurrean.
12. Doako laguntza juridikoa.
13. Guraso eta seme-alaben arteko harremanen gida. Guraso-agintea. Filiazioa. Tutoretza eta tutorearen irudia. Ezgaitzea. Defendatzaile judiziala. Adopzioa. Harrera.
14. Adingabekoen erantzukizun penala.
15. Tratu txarrak eta etxeko indarkeria. Sexu-askatasunaren aurkako delituak .
16. Bikote-harremanen gida. Ezkontza eta bikote-bizikidetzak. Guraso bakarreko familiak. Banantzea, dibortzioa eta baliogabetasuna. Banandu eta dibortziatzeko prozeduraren aldiak.
17. Familia-harremanetik eratorritako pentsioak. Seme-alaben aldeko elikagai-pentsioak. Konpentsazio-pentsioak banantze edo dibortzio kasuetan. Senideen artean elikatzeko obligazioa.
18. Laguntza bidezko ugalketa.